

Alemanak Hergarain

M.: eta gero, justuki, heldu ginen, denak oinez baitzien ordian, Lekunberrin ginien eta... Zen, jaanik, alemanak hor zien, gu zone libre ginen emen.

E.: hemen zone libre zen.

M.: ordian etsaminak, zertifikata pasatu ginien Lekunberriko eskolan, bo, ez ginien anitz, eh! Hoita lauzpost.

E.: xu eskolan xindelaik, beraz, hori zukexun... Berrogoia, ez?

M.: oui, oui.

E.: gerla, ordian, ez?

M.: hoita emetzi-berroia.

E.: ordian hasi, ta oroitzen xira alemanak ikusirik hemen gaindi?

M.: ah bai, Gasnategin e ba.

E.: Gasnategin e ba?

M.: ta Iraun bazuten etxola!

E.: etxola, muga ixtorio eta...

M.: otoa badakizu nun uzten den Iraun apepres goiti joaiteko?

E.: ba.

M.: e be, han bazuten zurezko eta egina.

E.: so ixe.

M.: udan an egoiten zien. Besteñan negian eta Chalet Pedro, delako Pedroin ostatu hua, hua rekizionatia zuten, eta han bazen beti alemana.

E.: eta oritzen xira xu makurrik eginik hemen ingurian? Edo han zirela doi-doia eta fini.

M.: ez, ez, tiroak intzunik ba.

E.: Gasnategian. Ah ba, eh?

M.: (irriak), gau batez ba xusto, hoita bost tiro tiratu zuzten, eta fite, eh!

E.: ze lotsa, ez?

M.: Irauko lepoan.

E.: ah, Iraukotik intzun xintien?

M.: ah, hurbil da! Irauko lepotik, eta en plus tiratu zuten horra buruz, eta bea zauden, beren ustez salatiak zien, baizu, armadak galtzen zitien materielak, ta bazien errotak ebasten zienak, eta Españaa joaiten zien, ta gau artan pasatu bear zela zeait han, merchandise-a, an zauden

bea, eta gau bat zen ederra, ilargizai xuri eta guziak, eta han plantatu zien, alemanak, eta justuki, Ibañez erten zakoten Xidro hura bost xerriin erostea jina zen Eztengilea, etxe batetarat, ta hek aitzinean bazoatzen biak, nausia, ta hua, erostuna. Harek erosten zitien ola Españakaldian baitzien ai zienak oihanetan lanian, heendako, heer saltzen zitien, ta han heltzian, eta Irauko lepoan heltzian, zeit argitzen kusi zuien, ta: “to, noit bauk or!”, “ah, ba, ez duk jeus e, Koakin duk, eta Primoinekoa eta jin bearra oialekin eta Gasnateira, ez Salaarrirat, ua Eztengileko etxia zen.

E.: a zautzen dixit, intzun dixit Salaberria.

M.: ta erran zakon: “seurro re ua uk”. Aantzutzen dira dremen dena, dremen dena, beren beldurra bazuten, zer zen, baizu, seurro Koakin duk, bena bestek eta haltoa emaiten dute, ta kaxo-kaxkoan zien arribatzen, ta brau, pentsatu zuten alemanak ziela, giileat eman zuten laster, bestek rau.

E.: tra, ta, ta, ta.

M.: guk intzun gintien bost tiro, hoita bost tiratiak omen zien.

E.: eta hil zitxun, edo...?

M.: automatique-ak zuzten, eh! Jadanik, urdiak, eta Xidro Ibañez, donc, hemengo zaina in zakoten balak, ta bestiak, barneko beltza bazen leeno, baizu, palto beltzak iiltzen zien, barneko beltza, ta hua zaalik baitzien, bala atek pasatia zien ain barneko xiloa, gero zien ohartu, eh! Paltoa xilo diat, aisa! Xantza ukan zuten, elgarri segitu zien, eta Gasnategikaldeat jauziak in zuzten eta potxa bati beeiti bota been buriak, eta han, bearrik, elur haundia izana baitzen, oono bazen elur meta. Hain gañeat erortzen dira, ta ordian: “na, kolpatia iz hi!”, “ni ez, eh!”. Bera zen kolpatia, uste zien bestia zela delako Xidrok, ta beala in zakon garrotia eta... Kusi baitzien lanjeros zela eta garrotia, eta salbatu zien gaizoa. Ba, ba, bena gero, alemanak han zien gaineko kaskoan, ah, ta gero zerriak kurrinkaz, aisa!

E.: eh, bixtan dena...

M.: xerriek errezibitu zuzten balak. Hak salbatu zuzten, bestañez, ek han garbituko zien, eh!

E.: zerriek, eh?

M.: ba, baizu, ek ecran in zuten, eta bestiak apaldu baitzien, ta xerriek, bost xerritaik biga bazien hilak, ta beste biga kolpatiak (irriak), ta hek alemanek ez baitzuzten galtzea utzi nai, beren txitxiak, hek etxolaat, han berian bazen artzain-etxola, oai e ono an da, eh! Haat sartzen ai zien, kurrinkaka intzuten zuzten bestek beren xilotik, ta gisa ateat hek salbatu zuzten, bestañez xekatuko zuzten argiekin horik biak, bena kusi zuten kontraandako gauzak ziela, eta xerriak, deubria, heendako onak zien jateko!

E.: ez zixien galtzera utziko.

M.: ez, ta batto eskapatu zen xerri bat, eta ua joan zen etxerat.

E.: ah, bazakixun hak bidia etxeat, eh!

M.: ba, ba, nundik partitia zen.

E.: erten dixie xerria biziki inteligenta dela, eh!

M.: ta geo ja, bearrik kolpatak zien, eh! Hok aal zuten bezala oianetik inguruz, erteko, trenpu txartzen zen gizona, galdu baitzien uste bano geio.

E.: ba, ba, eta bistan dena...

M.: hiru aldiz seurik trenpe txartuik aal zien bezala etxeano ereman zien, eh! Eta bidiak... Bidez kanpo joanez, eh! Eta beldur baitzien, baizu, ek segitzen zuztela, ez baitzakiten, baizu, ta beti etxeano ereman zien eta gizona, eta egon zen eri gaizki, anitz galdu baitzien, ta beti, xerri ek salbatu zuzten ono beste batzu, guk tiro ek intzun eta beldurrez ginen, ene aita joana zen justuki delako errota een xeka beste batzuekin, edo bide... Hua bide garbitzale zen, eh! Baizu, baitzien bideen garbitzaliak, bertziak mandoen gaiñian zuzten errotak.

E.: errotak ere trafikutzen baitziren?

M.: ah ba, alemaner ebatsiak! (irriak) eta Españaa saltzen zien ongi! Omen, omen, eh! Gero pasatzaliak, oriek mutilak zien, eh! Peonak, ta geo beti bazen hori eta mendibar bat bestzia, basko-española, Ebarist, eta hor esposatia Mendiben, eta hek biak bazoatzin bide garbitzale, eta etxola hartaat heltzen, argia: “bena ez diau hunat ina”, ina zuten Artxilondo beero zen beste etxola bateat rendez-vous, baizu, ta bitxi uk, pollikiño hurbiltzen dira, ta dios, alemanez mintzo, ta han beste unekin (zerri hotsa), zerria! “op, eskapa giten ementik!”. Gielatu zien, eta mandotaik deskargatu errotak eta bizkarrez pasatu zuzten delako Irauko potxa hortan eta harrien artetik bertzalderat.

E.: uf, ez zukexun aise, eh?

M.: eta ordian, mandoak pasarazi zuzten aal zuzten bezala, mandoa, baizu, aztaparrez abila baita, ta bertzaldian berriz kargatu ta eman zuzten errotak.

E.: so ixu.

M.: ta alemanak, alemanek, bertzaiñan han izain zien, eta errezibituko zuzten seurro tiroak, en fin, egoin zienak gau guzia, baizu, pentsu mazu, menturaz, lau orenen burian zen afera gertatu, merchandise-a pasatzia; xerriek salbatu zuzten, bena ara, orduko ixtorioak, alemanak ez zien han izain, salatiak baitzien, baizu, hor zeit pastuko uk, eta zazte.

E.: ba, ba, ba, ba,

M.: voilà. Bestañez, alemanak zaar batzu zien, eh, emen, baizu, eta adina zutenak, eta frontieren zain, baizu, auxilier-ak alo kasik, autriche-anoak eta ola zien, ez zen aleman purrik, eh, biziki, non, non.

E.: ez zuxun azkar handi oritaik, eta ez.

M.: et, et, et, et, ez gaixto oitaik ez, bazien hemen beherian SSak, ez zuzten manatzen horiek, banan oriek ez baitzien kexu, iten zuten hein batian beren lana.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala